



LORE BENGOTXEA

PARTE-HARTZE HANDIA. 13 andra eta 15 gizon dagoz tailerretan, eta itxaron zerrendea ireki dabe.

Etxeko lanak, danonak

ROLAK APURTZEKO HELBURUAGAZ. Egunotan, andra-gizonentzako tailer bereziak gauzatzen dihardue, etxeko beharrak banatu nahian

Lore Bengoetxea | ONDARROA

Ondarroako Udaleko Emakumearen Batzordeak tailer berezi batzuk antolatu ditu gizonei eta andrei ipinten jakezan rola apurtu eta etxeko zereginak banatzeko helburuagaz. Joan zan astetik, martitzeneko batzen dira, neska neskekin, eta mutilak mutilekin, institutuan.

Hamabost gizonezko eta beste hamairu andrazko animau dira rola apurtzeko zereginera. Martitzeneko euki eben bigarren saioa (joan zan astetik garbitasun kontuak azaldu eutsiezan). Danak batzen dira institutuan, gizonak beheko geletan, eta andrak, goikoetan. Konplizidadea edo badago batzuen eta besteen artean. Martitzeneko, andra bat euren eskolara joala, zera bota eutsen gizonezkoiei. «Bexamela ederra egin, eh?». Izan be, horixe izan zan atzo gizonak prestatu eben jatekoetako bat. Dilistak eta arroz be egin zituen, eta gosea zabaldu eutsen han hartzen zan usain ederrak. Alkarri erakusten be ibili ziran, danak ez ziran ezjakin hutsak eta. «Nik neuk zeozer jakin badakit, eta, beste alde batetik, beti gustau izan jat platerak prestatzen ibiltea», adierazo eban Josebak. Igorren gogo be beti izan da ezkaratzeko gorabeheren ganean gehiago jakitea. «Beti be ez gara makarroiak prestatzen egongo!», esan

GIZONEN IKASGAIK

Gizonezkoek garbitzen, jatekoa egiten, eta arropen garbitzen eta lixatzen ikasiko dabe

eban. Bigarren platerak egiten ikasiko dabe datorren astean. Arropak garbitzen geroago, eta, azkenengoz, lixatzen. Bien bitartean, martitzeneko, andrak, goiko geletan, elektrizidateko misterioak argitzen ahalegintzen ziran, eta brikolajea eta iturgintza izango ditue hurrengo asteotako ikasgaiak.

Antolatzaileak pozik dagoz lortu daben erantzunagaitik, eta zain egoteko zerrenda zabaldu behar izan dabe.

IKASITAKOAGAZ, ETXERA

Senar-emazteak eta ama-emeak be badagoz

Tailerretan parte hartzen dabilzanen artean, adin guztietako jentea batu da, batez be, gizonezkoetan. Badakie, ganera, batzuek besteen barri, ez bakarrik danak be herrikoak izaneran alkar ezagutzen dabelako, ez badabe ze, euretako batzuk etxeoak be badiralako baino: senar-emazteak eta ama-emeak be badagoz. Ikasitakoa gero etxera eroatea izango da kontua.



LORE BENGOTXEA

ZERTAN. Elektrizidatean, brikolajea eta iturgintza dabilz andrak.

LABURRAN

AULESTI

Andres Urrutia notarioak berbaldia emongo dau

Aulestiko Urzabal Guraso Alkartaren eskutik, Andres Urrutiak berbaldia emongo dau, gaur, Aulestin, 20:00etatik aurrera. «Foru Legediak herentziaren ganean eta beste gai batzuetan eragin dituan aldaketen barri emongo dau», azaldu dabe antolatzaileek.

MARKINA-XEMEIN

Alpinok federetako deia egin deutse mendizaleei

Markina-Xemeingo Artibai mendigoizale taldeak (Alpino) 2003rako federatu txartelak lortzeko epea zabaldu dau. Taldearen lokalean egin ahal dira eskaerak (Abesua 10; frontoiaren eta Osasun Etxearen atzeko aldean), martitzeneko eta egunetan, 20:00etatik 21:00etara. Urtarrilaren 31tik aurrera, bakarrik egunetan egongo dira. Argibide gehiago telefono honetan emoten dabe: 639 586 037.

ONDARROA

Zatozte denden alkarteak loteria banatuko dau

Ondarroako Zatozte denden alkarteak jakin arazo daue, joan zan urtean letxerik, aurten be, gabonetako loteria banatuko dau hilaren 21era bitartean alkarteko dendetan erosketak egiten dituenen artean, «bezeroen fideltasuna eskertu nahian». Lehen saria tokau ezker, 120 milioi euro banatuko dituela nabarmendu dabe.

Egia-Iriondo lasterketan izena emoteko epea zabaldu dabe

Gaurtik astelehenera bitartean, nahi daben guztiek Alai tabernatik pasau eta hilaren 22an izango dan Egia-Iriondo lasterketarako izena emon eta elastiko ofiziala eskuratu ahal izango dabe. Izenagaz batera hiru euro be emon behar dira.

Odol-emoteko aukerea egongo da zapatuan, Itsas Aurren

Bizkaiko odol-emoleen alkartearen unidate bat izango da zapatuan, Itsas Aurre kalean, 10:00etatik 13:00etara. Antolatzaileek odola emotearen garrantziaz berba egin dabe, eta ondarrutarrei bertara hurreratzeko dei egin deutse.

MARKINA-XEMEIN

Lantegietako ordena eta garbitasuna aztertuko ditue Lea Artibai ikastetxean

L.B.

Lea Artibai ikastetxeak jardunaldi tekniko egingo dau, gaur, 09:00etatik aurrera, *Ordena eta garbitasuna enpresetan* gaiaren ganean. Iluntzean, Eskualdeko I. Enpresa Ideien Lehiaketako sariak banatuko ditue.

Gurko jardunaldi teknikoan lagun bik egingo dabe berba. Joseba Zabala Lanbide Heziketako kalidaderako eta gaitasuna ebaluetako euskal agentziako teknikari eta Txukun-55 programearen koordinatzailea da. Metodologiaren jatorria eta helburuaren ganean jardungo dau. Iñaki Beitia Lea Artibai ikastetxeko prebentzino arduradunak joan zan urtean eskolan hasi eben esperientzia pilotoa ekarriko dau gogora. «Ikastetxeko lantegi mekaniko baten ipini genduan martxan. Metodologiaren alde praktikoa eta egunerokotasuneko arazo-urtenbideak azalduko ditue, beste gauza batzuen artean», argitu dabe antolatzaileek. Aurtongo plangintzan zortzi gunetan dihardue, eta horren barri be emongo dau.

Jardunaldia ziklo baten hasiera da. Uda aurretik, beharreko segurtasun eta osasun ataletan beste bi jardunaldi egingo ditue: apirilean, beharreko arriskuen prebentziorako legea, eskubide, betebeharrak eta erantzunkizunak aztertuko ditue, eta maiatzean, ergonomia irakaskuntzan.

Sari banaketea

Beste alde batetik, jakitera emon dabenez, Azaro fundazioak Lea-Artibaiko I. Enpresa Ideien Lehiaketaren sariak banatuko ditue, 19:00etan. Aurre-ratu dabenez, proiektuen bideragarritasuna ez eze, sortuko leuki lanpostu kopurua, eskualdean euki ahal daben egokitasuna eta izaera barritzailea daukien edo ez be kontuan hartu dabe.

AGENDEA

MARKINA-XEMEIN

Dendea: Mundu Zabal gobernuz kanpoko erakundeak dendea jarri dau, hilearen amaiera arte, herri garapenerako proiektuetan laguntzeko.

ONDARROA

Ipuin kontalaria: Ixabel Agirresorabe ipuin kontalaria LH 2ko umeekin batuko da liburutegian. Ekitaldia Txomin Agirre liburutegiaren artean irakurzaletasuna bultzatzeko antolatutako kanpainan sartzen da.